



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2021/22 Denboraldia

## 2. ZK.DUN ZIRKULARRA

### PARTIDA EZ OFIZIALAK (LAGUNARTEKOAK)

Euskadiko Futbol Federakundeak partida ez-ofizialak jokatzeko prozeduraren berri eman du.

Bi talde lehiakideak estatu mailakoak diren partidei dagokienez (Lehenengo RFEF Maila, Bigarren RFEF Maila, Hirugarren RFEF Maila, Gazteen Espainiako Ohorezko maila, Gazteen Nazional Liga, Emakumezkoen Lehen maila, Emakumezkoen Iberdrola Erronka, Emakumezkoen Nazional Lehen Maila, Emakumezkoen Areto Futbol Bigarren maila, Areto Futbol Bigarren B maila, Areto Futbol Hirugarren maila eta Areto Futbol Gazteen Ohorezko maila), baimen-eskaera Euskadiko Futbol Federakundera eta Arbitroen Euskal Batzordera bidali beharko da ondorengo posta helbideetara:

- FUTBOLA [info@euskadifutbol.eus](mailto:info@euskadifutbol.eus) eta [comitearbitros@euskadifutbol.eus](mailto:comitearbitros@euskadifutbol.eus)
- ARETO FUTBOLA [futbolsala@euskadifutbol.eus](mailto:futbolsala@euskadifutbol.eus) eta [arbitrossala@euskadifutbol.eus](mailto:arbitrossala@euskadifutbol.eus)

Estatu mailako talde baten eta euskal edo lurralde mailako talde baten arteko partidetan, eskabidea partida jokatu den probintziako lurralde federaziora (Araba, Gipuzkoa edo Bizkaia) bidali beharko da. Lurralde federazio bakoitzak ahalmena izango du partida jokatu eta baimendu ahal izateko behar diren betekizunak ezartzeko.

Euskadiko Futbol Federazioak "PARTIDA EZ OFIZIAL ESKAERA" izeneko dokumentu bat sortu du, partida bakoitzaren berri emateko, eta hor jasota daude elkargokideak baimentzeko eta izendatzeko baldintzak.

Euskadiko Futbol Federazioak, eskaera jaso eta egiaztatu ostean, dagokion baimena bidaliko die bi taldeei, eta, ondoren, Arbitroen Euskal Batzordeak izendapena jakinaraziko die.

Bilbon, 2021eko uztailak 8an

KEPA ALLICA BILBAO  
Secretario General